

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Material fisikoen artean: sentsoreak, belkroa, larrua, plantilak, bateria, kargadorea, makinak, garraiorako kamioiak, ordenagailuak, bulegoko materiala, lokalak (hasieran 3), apalak, oinaren neurria hartzeko materiala, telefonoak, garbiketarako materiala

Baliabide intelektualei dagokienez, agintarietako batek, Maitanek, moda eta diseinuko graduko ikasketak ditu, Olatzek, hornikuntza eta ekoizpenerako gradua, eta Nahikarik, aldiz, zerga sistemako eta administrazio publikoko gradua. Esperientziari dagokionez, Nahikarik Megacalzado enpresan egin zuen lan; eta kontaktuei dagokienez, Maitanek lagun bat du Once erakundeko enpresaria dena, beraz haiekin harremanetan jartzeko aukera erraza dugu.

Giza baliabideak direla eta: enpresaren sortzaile moduan hiru (Maitane, Nahikari eta Olatz), ekoizpenean 10 pertsona, dendetan bezeroekiko harremana mantentzen 6 (bi denda bakoitzean, kontuan hartuz hasieran 3 denda edukiko ditugula), produktuak garraiatzen dituztenak 3. Kontuan hartuz, oinetako bakoitza pertsonaren beharren arabera dela, garrantzitsua iruditzen zaigu oinen inguruan ezagutza duen pertsona bat edukitzea, beraz, gure kasuan podologo bat ere kontratatuko genuke.

Finantza-baliabideen artean: enpresaren sortzaile bakoitzak 7.000€ jarriko genituzke gure proiektua abian jartzeko eta aurreneko hilabeteetako alokairua ordaintzeko, eta horrez gain, Kutxabank enpresari 10.000€tako mailegu bat eskatuko genioke makinak eta zapatilak egiteko beharrezko lehengaiak eta tresnak erosi ahal izateko.